

GIG 04

MUTRIKUKO AMONITE ERRALDOIAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,5**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,57**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Kardal formazioa Zazpi Hondartzak izeneko eremuan azaleratzen da, Mutrikuren eta Saturrarango hondartzaren artean. Kostaldeko zati honetako karekizko lutita ilunetan hainbat amonite daude, oso deigarriak gainera, handiak eta astunak direlako eta deformatu gabe daudelako. Ale gehienak sideritazko geruzetan edo konkrezioetan daude.

Molusku zefalopodo horien maskorrak pixka bat altxatutako itsas hondo sakon batera erortzen ziren; uhertasun-lasterren eraginpean ez zegoen hondora, hain zuzen ere. Maskorrak sedimentu finean eta baldintza anoxikoetan lurperatuta zeudenean, siderita primarioa hauspeatu zen haien gainean, sedimentuen beraien materia organikoaren deskonposizioaren ondorioz. Hori dela-eta, maskorrak izugarri gogortu ziren, eta horri esker, ez ziren deformatu gerora zapalduak izan zirenean. Badira sutura konplexuak eta oso ikusgarriak dituzten zati solte batzuk.

Narvaez senar-emazteek hainbat amonite erraldoi ikusgarri jaso dituzte 30 bat urtean, eta orain, Mutrikuko Nautilus museoan daude ikusgai amonite horiek. Gaur egun, erabat debekatuta dago geoparkean fosilak hartzea.


Geoparkeak bultzatutako ikerketa batek erakusten du amoniteen tamaina bizakaiko golkoaren irekieran sortu ziren itsas azpiko emari hidrotermalekin lotuta egon daitekeela.

NOLA BERTARATU

Zazpi Hondartzetako itsaslabarrera Saturrarango hondartzatik edo Mutrikuko portutik joan daiteke. Baina kontuan izan behar da inguru hori oso arriskutsua dela eta ura behe samarreen dagoenean bakarrik joan daitekeela bertara. Bestalde, Nautilus museoa Mutrikuko herrigunean dago.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Saturrarango hondartzatik Zapi Hondartzaren ikuspegi ederra dago, baina fosilak ez dira erraz ikusten. Amoniteak ikusteko aukerarik onena Nautilus museora joatea da.



Amonite erraldoiak jaso diren "Zazpi hondartzak" labarretako ingurua.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 549166 m / Y= 4796385 m / Alt.= 0 m



Mutrikuko amonite erraldoia.